



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025-eko Abendua

AEMPS: SEGURTASUN- OHARRAK

- Giza erabilerarako medikamentuen segurtasun-buletina (abuztua-iraila)
- Keppra®ren ahozko soluzioa (lebetiracetam) 150 ml-ko flaskoa 6 hilabete eta 4 urte bitarteko haurrentzat: medikazio-errorearen arriskua xiringa aldatzearen ondorioz

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

PRESBIDEKO BERRITASUNAK

Bi formula magistral berri sartu dira errezeta elektronikoan

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ANTIBIOTIKOAK ZUHURTZIAZ ERABILTZEARI BURUZKO PRAN-EKO 2025 JARDUNALDIA

PRANek 2025erako kanpaina aurkeztu du

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

AZAROAREN 14A: DIABETESAREN MUNDUKO EGUNA

OMEk haurdunaldiko diabetesari buruzko munduko gidalerroak aurkeztu ditu

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

TXERTOEN EGUTEGIAREN EGUNERAKETA: COVID-19AREN AURKAKO INMUNIZAZIOA 2025-2026 DENBORALDIAN

COVID-19aren aurkako Bimervax® LP.8.1 txertoaren administrazioa

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- INFAC BERRIA:** Farmako hipolipemiatzaile berriak (Azido benpedoikoa, etil ikosapentoa, inklisirana...)
- AHOTIKO ANTIKOAGULATZAILEEI BURUZKO SEFAP-EN INFOGRAFIA:** Zer jakin behar duzu ahotiko antikoagulatzaileen bidezko tratamenduan zaudenean?
- 2026KO GOLD GIDA:** BGBKari heltzeko erreferentziatzko gida

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

TABAKOARI UZTEKO ETA GTI GIDA KORPORATIBO BERRIETAN ADIERAZITAKO SENDAGAIEI BURUZKO BIDEOAK ETA INFORMAZIO DOKUMENTUAK

9

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

AEMPS: SEGURTASUN-OHARRAK

Giza erabilerarako medikamentuen segurtasun-buletina (abuztua-iraila)

2025eko azaroan [Giza Erabilerarako Medikamentuen Segurtasunari buruzko Buletina \(abuztua-iraila\)](#) argitaratu da, eta han farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako segurtasunari buruzko informazio berria biltzen da. Ebaluatutako medikamentuen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Bupropiona: larruazaleko erreakzio larriak
- Ziklosporina: edoskitzea
- Dexketoprofenoa/tramadola: abusua, mendekotasuna eta Kounis-en sindromea
- Testosterona: interakzioa SGLT-2 inhibitzaileekin, biriketako mikroenbolia

Keppra®ren ahozko soluzioa (lebetiracetam) 150 ml-ko flaskoa 6 hilabete eta 4 urte bitarteko haurrentzat: medikazio-errorearen arriskua xiringa aldatzearen ondorioz

Keppra® (lebetiracetam) merkaturatzen duen laborategiak, 150ml-ko 6 hilabete eta 4 urte bitarteko haurrentzako Keppra®ko ahozko soluzioaren xiringa aldatzearen ondorioz, medikazio-errorean arriskua dagoela jakinarazi du.

Laburbilduz:

- **5 ml-ko xiringa berri batek**, zeinarekin 500 mg lebetiracetam eman daitezkeen, 3 ml-ko xiringa ordezkatu du, zeinarekin 300 mg lebetiracetam eman daitezkeen.
- 5 ml-ko xiringa berriarekin lebetiracetam agindu eta eman behar denean, **zaintzaileei xiringaren bolumena aldatu dela jakinarazi** behar zaie. Zaintzaileei jakinarazi behar zaie, halaber, 5 ml-ko xiringa berriak **0,25 ml-ko graduazioak** dituela, 3 ml-koak ez duena. Gainera, 6 hilabete eta 4 urte bitarteko haurrei zuzendutako Keppra®ko ahozko soluzioak dakarren ziringa berria lebetiracetam-eko ahozko soluzioaren aurkezpen generikoek adin talde berari ematen dioten xiringaren desberdina izan daiteke.
- Denboraldi batez, **merkatuan** 5 ml-ko eta 3 ml-ko xiringa daukaten aurkezpena **batera egongo dira**, eta, beraz, kontu handiz egiaztati behar dute zer aurkezpen ematen zaien medikamentuaren dosifikazioan akatsik gerta ez dadin.
- Zintzaileei aholka iezaiezu erabilera-orriaren jarraibideak irakur ditzaten, lebetiracetam bidezko **gaindosi** baten zeinuak eta sintomak ezagutzeko eta egoera horretan zer egin jakiteko, xiringa nola **erabili eta garbitu** behar den zehazteaz gain.

[Informazio gutuna](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 PRESBIDEKO BERRITASUNAK

Beste bi formula magistral sartu dira errezeta elektronikoaren sisteman:

- CN: 140570 FM PRIMETAMINA 2 mg/ml suspensión oral 200 ml
- CN: 140571 FM SULFADIAZINA 100 mg/ml jarabe especial 100 ml

Zerrenda osoa hurrengo esteka honetan ikusi daiteke: [Formula magistralak e-Rezetan](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 ANTIBIOTIKOAK ZUHURTZIAZ ERABILTZEARI BURUZKO PRAN-EKO 2025 JARDUNALDIA

Azaroaren 18an, Antibiotikoak Zuhurtziaz Erabiltzearen Europako Eguna (EAAD) zela-eta, Antibiotikoekiko Erresistentziari Aurre Egiteko Plan Nazionalaren (PRAN) Jardunaldia egin zen Osasun Ministerioan, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) koordinatuta. Jardunaldi horien asmoa da antibiotikoen erabilera egokia sustatzea eta ikusgarritasun handiagoa ematea Espainian medikamentu horiekiko erresistentziari aurre egiteko abian dauden ekintzei.

Aurten, jardunaldiaren ardatza da desinformazioaren inpaktua eta gezurrak identifikatzeak eta gezurtatzeak mikrobioen aurkako erresistentzian duen garrantzia.

4 AZAROAREN 14A: DIABETESAREN MUNDUKO EGUNA

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) [haurdunaldian diabetesa tratatzeko lehen jarraibide orokorrak](#) aurkeztu ditu. Izan ere, sei haurdunalditik batek egoera hori pairatzen du, hau da, 21 milioi emakume inguru urtero. Jarraibide berri horiek funtsezko gida bat eskaintzen dute gero eta handiagoa den osasun-arazo horri aurre egiteko eta emakumeen zein haurtxoen konplikazio larrien arriskua murrizteko.

[Albiste](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 TXERTOEN EGUTEGIAREN EGUNERAKETA: COVID-19AREN AURKAKO IMMUNIZAZIOA 2025-2026 DENBORALDIAN

COVID-19aren aurkako Bimervax® LP.8.1 txertoaren administrazioa

Bimervax® txertoa EMAK berriki baimendu du, SARS-CoV-2 LP.8.1 aldaerara egokitze. Erabilera-adierazpenal zabaldu dira **immunokonprometitutako** pertsonentzat, eta adin tarteak jaitsi da **12 urtetik gorako nerabeetara**.

Proteina birkonbinatuz egindako txertoa da. Pauta dosi bakarra da, aurretik jasotako COVID-19 txertaketaren egoera kontuan hartu gabe, eta jasotako txertoaren azken dositik edo infeziotik 6 hilabeteko tartearekin.

Euskadin banatuko diren dosiak mugatuak direnez, lehentasunez erabili beharko litzateke honako egoeretan:

- Arrisku handiko pazienteak, ospitaleetako kontsulta espezializatuetan (Medikuntza Prebentiboa eta Infektologia pediatrikoa).
- Etxeko arretan txertatzea.
- ARNm txertoetarako kontraindikazioa duten pertsonak.
- Gainerako arrisku-taldeetako pazienteak, kanpainan txertatu ez direnak eta urtetan zehar atzematen direnak.

[Informazio-oharra](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC berria: Farmako hipolipemiatzaile berriak

Azken urteotan, medikamentu hipolipemiatzaile berriak merkaturatu dira, hala nola PCSK9ren inhibitzaileak (i-PCSK9) (ebolokumaab eta alirokumaba), azido benpedoikoa (bere kabuz edo ezetimibarekin lotuta), etil ikosapentoa eta inklisiana.

INFAC honen helburua da hipolipemiatzaile berri horiek terapeutikan duten eraginkortasunari, segurtasunari eta lekuari buruzko ebidentzia laburbiltzea. Horrekin batera, informazio erabilgarria ere erantsi da, familia-hiperkolesterolemia

homozigotikoan (ebinakumaba eta lomitapida) eta familia-kilomikronemiaren sindromean (bolanesorsena) ospitaleko arretan gomendatutako beste medikamentu batzuei buruz.

INFAC: Farmako hipolipemiatzaile berriak

1. taula

2. taula

SEFAPen infografia ahotiko antikoagulatzaileei buruz

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) bere 42. infografia argitaratu du, pazienteei eta herriarrei zuzenduta: Zer jakin behar duzu ahotiko antikoagulatzaileen bidezko tratamenduan zaudenean? Horren bidez, ahotiko medikamentu antikoagulatzaile motak eta horien arteko desberdintasunak jakinarazi nahi dira. Horrela, tratamenduen segurtasuna sustatu nahi da, bai konplikazioak sor ditzaketen erabilera-akatsak saihestu ere.

Infografia

2026KO GOLD GIDA

Azaroan, GOLD Gidaren 2026ko eguneraketa argitaratu da. GOLD gida (*Global Initiative for Chronic Obstructive Lung Disease*) Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoaren (BGBK) diagnostikoa, tratamendua eta prebentzioa hobetzeko ekimen globala da. Urtero egiten eta eguneratzen da, ebidentzia zientifiko berrienean oinarritutako gomendioekin, eta barne hartzen ditu diagnostiko-irizpideak, BGBKren larritasunaren sailkapena eta osasuneko profesionalentzako erabilera-estrategiak. Mezu honekin batera erantsi da oraingo honetan egin diren aldaketen laburpena.

Web-orria

Jatorrizko dokumentua

Laburpena

HASIERA-ra Itzuli

7

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauek dira abenduko berritasunak:

2025eko abendua		
	Sei hilean behingo Leuprorelina	Camcevi® 42 mg askapen luzeko susp. xiringa bat. Bisatuaren beharra kendu da. Horrela, homogeneizatu egiten dira sei hilean behin ematen diren leuprorelina duten medikamentuak emateko baldintzak.
	Dulaglutida	Trulicity® 0,75 eta 1,5 mg, 4 luma. Hedapen pediatrikoa finantzatzeko erabakia zuzentzea (ikusi dulaglutida 2025eko azaroa). Indikazioa honela geratu da: Behar bezala kontrolatuta ez dagoen 2 motako DMA duten 10-18 urteko pazienteen tratamendua, diabetesa tratatzeko beste medikamentu batzuei gehitutako dietarekin eta ariketarekin lotuta. Finantzaketa bisatu bidez mugatzen da 2 motako DM tratatzeko GMI > 30 kg/m ² -ko obesitatea dutenetan eta beste antidiabetiko batzuekin konbinatutako terapian (ez monoterapian), intsulina barne, baldin eta horiek, dietarekin eta ariketarekin batera, ez badute glukemia-kontrol egokia lortzen. Fitxa teknikorako esteka.
	Kanagliflozina	Invokana® 100 eta 300 mg, pelikulaz estalitako 30 konp. Finantzatutako indikazioaren* hedapen pediatrikoa 10 urtetik aurrera. Honela geratuko da:

		- Helduentzako eta 10 urtetik gorako haurrentzako tratamendua, 2 motako DMA behar bezala kontrolatuta ez dagoenean, dieta eta monoterapiako ariketari lotuta, metformina egokitzen ez denean, intolerantzia edo kontraindikazioak direla eta. - Behar bezala kontrolatuta ez dagoen 2 motako DMA duten helduen eta 10 urteko haurren tratamendua, diabetesa tratatzeko beste medikamentu batzuei gehitutako dietarekin eta ariketarekin lotuta. *Invokana® 300 mg aurkezpenaren finantzaketa mugatu egiten da bisatu bidez, 100 mg-ko kanagliflozina dosiarekin gluzemia-kontrola lortzen ez duten paziente diabetikoen tratamendura. Fitxa teknikorako esteka.
	Klotrimazola	Clotic® 10 mg/ml, tanta otikoen sol., dosi bakarreko ontzia. Indikatuta dago kanpoko otitis fungikoa (otomikosia) tratatzeko helduetan, nerabeetan eta hilabetetik gorako haurretan. Fitxa teknikorako esteka.

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripziorako eta emateko baldintzak zabaltea.

 Merkaturatutako printzipio aktibo berria (edo lehendik dagoen bat administratzeko bide berria)

2020ko urtarritetik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK


Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Daparox® (paroxetina) 33 mg/ml AHOZKO TANTAK soluzioan, 20 ml-ko frasko bat
- Desmopresina 0.2 mg 30 konp
- Effentora® (fentanilo) 100 mcg 4 AHOZKO konp
- Lanirapid® (metildigoxina) 0.1mg 50 konp
- Lomper® (mebendazol) 20 mg/ml ahozko SUSPENSIOA 30 ml
- Pulmicort® (budesonida) 0.5 mg/ml inhalatzeko suspentsioa
- Semglee® (insulina glargina) 100 U/ml injehtagarria
- Tegretol® (karbamazepina) 400 mg 100 konp

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Aldactacine 25/15 mg, 40 konp
- Furantoina® (nitrofurantoina) 50 mg, 21 y 42 konp
- Itragerm® (itraconazol) 50 mg 14 kapsula gogorak
- Lebotirxoina sódica teva® 50 mcg 50 konp y 75 mcg 100 konp
- Lebotiroxina aristo® 200 mcg 100 konp
- Resincolestiramina 4 g hautsa ahozko suspentsiorako, 50 zorro
- Rifinah® (rifampicina/isoniazida) 300/150 mg 60 konp
- Tiaprizal® (tiaprida) 12 mg/ml ahozko tantak soluzioan, 60 ml-ko frasko bat
- Tranalex accord® (hidrocloruro de naltrexona) 50 mg 28 konp
- Valaciclovir 500 mg 10 y 42 konp, y 1000 mg 21 konp
- Virgan® (ganciclovir) 1.5 mg/g gel oftalmikoa 5 g
- Zyprexa® (olanzapina) 10 mg injehtagarria

PRESBIDEn "Hornidura eza" botoia eskuragarri dago, "Preskripzioen kontsulta" pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9 TABAKOARI UZTEKO ETA GTI GIDA KORPORATIBO BERRIETAN ADIERAZITAKO SENDAGAIEI BURUZKO BIDEOAK ETA INFORMAZIO DOKUMENTUAK

Joan den ekainean, tabakoa uzteko eta GTI gida korporatiboak aurkeztu ziren, eta gida bakoitzerako erizain elkarlanerako indikazioa bideratu zen.

Arabako ESI-ko lehen mailako arretako farmazia-taldeak gida bakoitzeko sendagaiei buruzko informazioa eta Presbiden erabiltzeko gomendioak biltzen dituzten testu eta bideo batzuk garatu ditu.

Egindako materiala Arabako ESIko intraneteko gune berri batean dago eskuragarri, hona hemen: [Elkarlaneko indikazioa](#)
Era berean, abenduaren 16an, 13:30ean, zoom bidezko saio bat egingo da, material hori ikusi ondoren lehen mailako arretako profesionalak sor dakizkiekeen zalantzak argitzeko.

Hori dela eta, Farmazia LMAk eskatzen du bideoak eta horiekin batera doazen testuak aztertu ondoren, argi geratzen ez diren kontzeptuak badaude, zalantzak FARMACIA.PRIMARIAOSIARABA@osakidetza.eus helbidera bidaltzea. **Jasotako galderak** saio honetan argitzen saiatuko da.

Honi lotuta, erizain indikazioarekin lotutako informazio guztia eskuragarri dago intranet korporatiboko esteka honetan: [Sendagaiak eta produktu sanitarioak emateko indikazioa, erabilera eta baimena](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da
FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez
Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da